



MID-AMATEUR TXAPELKETA

ARAUDIA

DATA ETA TOKIA:

Urriaren 28a; Larrabea Club de Golf.

PARTE-HARTZAILEAK:

Parte hartu ahal izango du proban lizentzia indarrean, handicap zehatza esleituta duen eta proba egiten den urtean 30 urte betetzen duen bi sexuetako jokalaria amateur orok. Jokalariren batek atzerriko klub bateko lizentzia badu, bere handicap zehatza egiaztatu beharko du bere klubak edo federazioak egindako ziurtagiri baten bidez izena emateko epea ixten den egunean.

JOKATZEKO MODUA:

18 zulo jokatuko dira Stroke Play Scratch modalitatearen arabera. Proba balioduna.

IZEN-EMATEAK:

Klub antolatzailearen bulegoetan, bertoko arauen arabera.

Izena emateko epea urriaren 16ean hasiko da eta urriaren 27ko 11:00etan itxiko da.

IZENA EMATEKO ESKUBIDEAK:

Proba izango den klubeko kideek edo Arabako federatuek: jokalaria bakoitzak, 17 euro.

Arabatik kanpoko federatuek: jokalaria bakoitzak, 35 euro.

Jokalariak emakumezkoak zein gizonezkoak izan daitezke, baina talde bakoitza osatu beharko da sexu bereko jokalariekin.

Probaren batzordeak ezarri du jokalaria parte-hartzaileen gehieneko kopurua 112 dela, honela banatuta: 84 gizonezko eta 28 emakumezko.

Parte-hartzaileen kopurua probaren batzordeak adierazitakoa baino altuagoa bada, bazter geratuko dira handicap altuena duten jokalariak. Baldin eta jokalarien gehieneko kopurua bada, eta izena eman duten jokalaria horiek berdindurik badaude handicap zehatz berbera dutelako, denak onartuko dira.





Baldin eta jokalarien kopurua (emakumezkoak zein gizonezkoak) onartutako gehieneko kopurura helduko ez balitz, soberako kopurua beste sexuko jokalariekin bete ahal izango da.

Kategoria bat jokatu ahal izateko, parte-hartzaileak izan beharko dira sei gizonezko eta lau emakumezko, kategoriak euren artean independenteak izanik.

JOKO ARAUAK:

Honakoen arabera jokatu da: EGEFk argitaratutako eta indarrean dauden Golf Arauak, EGEFren tokian tokiko behin betiko arauak, EGEFren lehiaketaren baldintzak, eta proba bakoitzaren tokian tokiko eta bertoko epaileak onartutako arauak.

Txapelketaren antolakuntza probaren batzordearen ardura izango da.

IRTETEKO HURRENKERA ETA ORDUTEGIAK:

Irteera egingo da handicaparen hurrenkerari hertsia-hertsian jarraiki; era berean, probaren batzordeak ezarriko du ordua eta handicapik baxuena dutenak lehenak irtengo dira.

Edozein arrazoia dela eta, izena eman duen jokalariren bat ezingo balitz irten ezarritako orduan, jakinarazi beharko dio probaren batzordeari, klubari edo erakunde antolatzaileari. Jokalariak hutsegitea zuzitzen ez badu, ezin izango du parte hartu AGFk antolatuko duen hurrengo proban.

IRTETEKO BARRAK:

Gizonezkoentzat: Horiak

Emakumeazkoentzat: Gorriak

BERDINKETA HAUSTEA:

Probaren txapelduna izateko berdinketa badin badago, berdinketa hausteko berdinduta dauden jokalariek play-off bat jokatuko dute, bat-bateko heriotzaren sistemaz eta behar diren zuloak berdinketa hausteko, zuloz zulo.

Berdinketa hausteko zuloak 1.a, 4.a eta 9.a izango dira zentzu naturalean.

Gainerako postuetako berdinketak hausteko erabiliko den formula azken zulorik onenak izango da. Honako azken zulo hauek kontuan hartuko dira: 9.a, 12.a, 15.a, 16.a eta 17.a. Azken zuloak beti ere zango dira ezarritako itzuliarenak, zein izan den irteteko tee-a kontuan hartu gabe. Berdinketak jarraitzen badu, joko handicapik altuena duen jokalariren alde ebatziko da. Hala ere, berdinketak jarraituko balu, zozketaren bidez ebatziko da.





PROBAREN BATZORDEA:

Honakoek osatuko dute: klub antolatzailearen lehiaketa batzordearen bi kide eta federazioaren ordezkari bat.

JOKABIDE DESEGOKIA:

Jokalari batek oker jokatu balu (makila bota; makilaz lurra, poltsa, gurdia jo; biraoak esan; lehiakide, epaile edo batzordekide batekin begirunerik izan ez) edo etiketa arauak errespetatzen ez baditu, instalazioak egoki erabiltzen ez baditu, EGFko kirol batzordeak neurriak hartuko ditu kasu bakoitzean, hala nola, AGFk antolatzen dituen probetan ez onartzea.

JOKATZEKO DENBORA:

Ezarritako itzulia egiteko ezarritako gehieneko denbora 4 ordu 30 minutukoa da.

SARIAK:

Arabako Golf Federazioak emango ditu trofeoak.

Gutxieneko parte-hartzaileen kopurua, trofeoa eta kategoria bat jokatzeko xede, honakoa izango da: sei jokalaria gizonetzko eta lau jokalaria emakumezko, kategoriak independenteak izanik euren artean.

Trofeo guztiak metagarriak izango dira.

Arabako txapelduna (gizonetzkoa)

Arabako txapelduna (emakumezkoa)

Arabako txapeldunordea (gizonetzkoa)

Arabako txapeldunordea (emakumezkoa)

2. kategoriako irabazlea (gizonetzkoa)

2. kategoriako irabazlea (emakumezkoa)

3. kategoriako irabazlea (gizonetzkoa)

3. kategoriako irabazlea (emakumezkoa)

4. kategoriako irabazlea (gizonetzkoa)

4. kategoriako irabazlea (emakumezkoa)

5. kategoriako irabazlea (emakumezkoa)





Bakarrik Arabako Federazioaren lizentzia dutenenetzat: txapeldun absolutua (gizonezkoa), txapeldun absolutua (emakumezkoa), txapeldunorde absolutua (gizonezkoa), txapeldunorde absolutua (emakumezkoa).

Txapeldunek eta txapeldunordeek Arabako Federazioaren lizentziarik ez balute, ezin izango dute trofeoa eskuratu; hala ere, emango zaie legokiekeen antzeko trofeo bat.

Edozein federaziotako jokalarientzat irekia: 2. kategoriako irabazlea (gizonezkoa), 2. kategoriako irabazlea (emakumezkoa), 3. kategoriako irabazlea (gizonezkoa), 3. kategoriako irabazlea (emakumezkoa), 4. kategoriako irabazlea (gizonezkoa), 4. kategoriako irabazlea (emakumezkoa), 5. kategoriako irabazlea (emakumezkoa).

Opariak zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

Probaren batzordeak araudia aldatzeko eskubidea beretzat gordetzen du.

- **VB00 lizentzia izanez gero, NANA eta federazio txartelarekin batera eman beharko da; hartara, jakingo da zein lurraldetakoa den jokalaria bakoitza.**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 11an

